

Kaskoetako bidexka

Distantzia 10,2 km	Desnibela 480 m	Iraupena 3h00	Tipologia Itzulia	Zedarriak PR ibilbide osoan
------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	---------------------------------------

Donibane Lohizunetik (A63 autobideko 3. jalgebidea), D918 segitu Azkaine eta Senpereko norabidean. Azkaineko hiri-barrera heldu eta ibilgailua eliza gibelean utzi (P1 aparkalekua) edo hurbil seinalatuak diren beste aparkalekuetan.

GPS datuak: **UTM : 611 911 - 4800 008 Lat/Long : 43.34458/-1.61926**

Euskal kostaldeko ibilaldirik famatuena,aldi berean panoramiko eta ondarezkoa. Azkaineko gainaldeetan, Santinazio lepoaren muino panoramikoetatik iragaten da ibilbidea, mendiz eta ozeanoz osatutako zerumuga batekin, Larrunetik Donibane Lohizuneko badiaraino.



1. ZATIA > Azkainetik Bizkartzunera


UTM: 611 911 - 4800 008

Elizako aparkalekuaren behean (P1), hilerriko karrika segitu ezker, eta eskuineko lehen karrikan itzuli (pilota plaza eta Santa-Maria eskola artean, P2 norabidean). Arraioa karrika igo bururaino. Gainean (Arraioa etxaldea), bide sakona hartu ("gailurren bidexka" geziz seinalatu). Y itzurako bidegurutzera heltzen da, ubide ttipi batetik hurbil: ezker jaitsi erreka zeharkatzeko (zubixka) eta beste hegian, bide zabal eta harritsuan igo. Igotzen den zeharkatzearen ondotik, bigarren bihurtzean bidea utzi, parean duzun bidexkan igotzeko. Beste bide bat mozten du eta zuzen segitzen du pareta apal baten luzeran. Isatsen artetik ibili gailurreraino.

2. ZATIA > Bizkartzunetik Zuhalmendi lepora

UTM: 612 770 - 4800 438

Bizkartzungo gailurretik, etortzen zaren lekura itzuli pareta apalaren oinean den bidegurutzearaino: ezkerrean joan eta Martinhaurren bordaren aitzinetik iragan, haritz eder baten oinean. 50 m egin bide zabalean, eta Y itzurako bidegurutzearan, eskuineko bidea hautatu. Muinoaren hego mazelan erregulartasunez igo. Gurutze bat eta harri grabatua den laugunean (Larrunerako ikuspegia), parean den bide harriztatuan segitu, eta laster eskuinaldera, kasko borobildu zabalean segitzeko. Kintoa euskal zerriei buruzko informazio gunearen ondotik iragan.



3. ZATIA > Zuhalmendi lepotik Nausien lepora

UTM: 614 518 - 4798 931

Zuhalmendi lepoaren bidegurutzearan, eskuineko bidetik jaitsi (euskal zerritegiak). Lehen ibarxkan, ezkerreko bidexka utzi eta eskuin segitu pinuen azpiko bidetik. T itzurako bidegurutzera jaitsi (40 eta 41 lursailen artetik): ezkerrean joan. Hareatsua eta laua, bidea bigarren ibarxka oihantsu baten hondora iristen da (errekasto); bidearen jarraitasunean egon, eskuinaldean. Lau bideetako elkargunerantz doi bat igo: oihan batean igo ezkerretatik. Landa aitzin, eskuineko bidexkan segitu. Pinuen azpitik iragaten da eta tontor-lerro panoramiko batera heltzen. Eskuinaldera jaitsi tontor-lerroko bidexkan.

4. ZATIA > Esnaur eta Azkainera itzultzea

UTM: 613 307 - 4798 528

Jaitsiera zuzen batetik, D4 errepidetik hurbil den lepora iritsi (aparkalekua): parean den Nausienbordako errepidetik igo. Etxaldera heldu zarenean, biltegiaren ezkerretatik jaisten den bidexka segitu. Hesi baten bazterretik doa eta eskuinera igotzen da isatsen artetik. Patarrean, 90°-tan itzultzen da ezkerrean, eta Esnaur muinoaren zati zutenean igotzen da (pasarte akigarria). Gailurrean, ozeanoaren parean, zure eskuinean jaisten den bidexka hartu. Laugunearen heinean (mendixka ttipi bat eskuin), ezkerrean itzuli Azkainera doan bidexkaren jarraitasuna aurkitzeko. Behean, parean den oihanean sartu eta, atexka eta gero, segidan mundrunean eskuinera jaitsi. Arraioko etxaldea berriz topatu eta Azkaineraino jaisten den karrika ezkerrean.

INTERESGUNEAK

❖ Bizkartzungo gotorlekua

Isatsek Bizkartzungo gailurra multzoka inguratzen badute ere, goratasun panoramiko honetan, ingurabide-arroila baten itxura geometrikoaz ohar gaitzake. Gotorleku baten aztarnak dira, Frantzia eta Espainia arteko mugaren defentsarako gune zaharra, Ingeles armadaren aitzinean, XIX. mende hasieran. UTM: 612 770 - 4800 438

❖ Kintoa euskal zerria

Zuhalmendi lepoaren aldean, Kintoa euskal zerri-haztegi baten ondoan gabilta, kanpoan hazitako tokiko arraza. Informazio taulek eta joko batzuek argibide gehiago eman dizkizute hur eta espezia usaineko urdaiazpikoei eta gazkiei buruz. Anartearen zerriek hemen iragaten dituzte egun osoak, ozeanoarako ikuspegiarekin. UTM: 614 359 - 4799 153

❖ Larrungo trenerako ikuspegia (6,8 km)

Santinazio errepediko lepoaren gainean diren mendi gain horietatik, Larrungo trenaren burdinbidea parean dugu. Kremailera trenbide bat da, elektrika-trakzioakoa, 1924an estreinatua izana. Garaiko tren-ilarak gora eramaten ditu, lepotik gailurrera, 4,2 km-tan. Patarrengatik, motoreak bagoiak bultzatzen ditu igoldian eta atxikitzen jaitsieran. UTM: 613 493 - 4798 274

❖ Esnaurko gotorlekua

Hogei gotorleku baino gehiago izan ziren Larrungo mendigunean banatuak muga babesteko eta erasotzaileen oldarrak menean atxikitzeko. Lehen aldikotz erabili zituzten 1793an, espainol nahikundeen aurka, bigarren aldikotz 1813an, Sout marea la Wellingtonen ingeles soldaduei buru egiten saiatu zelarik. UTM: 612662 - 4799350

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

- Azkaine, saltegi eta zerbitzu guzikiak
UTM: 611 755 - 4800 085

- Azkaine, Xurio pilota plazatik hurbil, ur gunea, komunak
UTM: 611 882 - 4800 135

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilbideko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzieren gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbidearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoan, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbidearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziartzaren duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└┘	└┘	└┘	◀
Itzul eskuin	┘└	┘└	┘└	▶
Norabide okerra	✕	✕	✕	✕

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Méteo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrek gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gov.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02

- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69

- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99

- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14

- AZKAINA, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84

- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa

Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.